

GENOZIDIOA

XIX eta XX. mendeko kontzeptua eta praxia

2015-2016

Historiako Gradua

Tutorea: Susana Serrano Abad

Historia Garaikideko Saila



Jon Gezuraga Agirrezabala

LABURPENA

XIX eta XX. mendeko historia muturreko biolentziak baldintzatu zuen. Beraz, biolentzia horrek sortu zituen gertaera berriak definitzeko 1948. urtean Lemkinek, *Genozidio* terminoa asmatu zuen. Lan honen helburua termino horren esanahia zehaztea da, hitz horretan biltzen diren ekintzak oso ankerrak dira eta horren ondorioz ikerketa munduan ez dago bere esanahiari buruzko adostasunik.

Ikerlariak kontzeptua definitzeko dituzten arazoan ondorioz, lehenengo zatian Jacques Semelin eta George Stanton-en ikuspegia erabiliz terminoa definitzen saiatu gara, haien ustez, zuzenbideko adituen eta historialarien lana banatua egon beharko litzateke. Zuzenbideko adituek, zergatik, zelan? eta noiz?, galderei erantzun behar diete eta ekintza ankerren ezaugarriak ikertu behar dituzte genozidio moduan sailkatzeko eta egileak epaitzeko.

Bigarren atalean, “Armeniako Kasua” azaldu dugu eta autore horien ideiak genozidioa den, hala ez, sailkatzeko aplikatu ditugu. Horretarako XIX. mendeko testuinguru historikoa azaldu dugu eta Lehenengo Mundu Gerrak, Inperio Otomandarrak burutu zuen armeniarren kontrako politikan izan zuen eragina zehaztu dugu. Horrez gain, prozesu genozida azaltzen saiatu gara, ankerkeriaren gailurra 1915. urteko “Genozidio Handian” izan zuena.

Armeniako Genozidioa ikertzen duten historialariak banatuak daude, bi korrante historiografiko sortu ziren, batek Armeniako sarraskiak genozidioa izan zirela onartzen dute, besteek ordea gerra ekintzak zirela esanez justifikatzen dituzte.

Ikerketa munduan dagoen bitarikoa alde batera utziko dugu eta Semelin eta Stanton-en pentsamendua erabiliz “Armeniako sarraskiak” genozidioa izan zela zehazten saiatu gara.

AURKIBIDEA

Sarrera

I. Zatia: Genozidio kontzeptua

1.1. Genozidio kontzeptuaren aurrekariak eta behar izatearen prozesua.....	8
1.2. Nork asmatu zuen?.....	9
1.3. Kontzeptuaren eboluzioa	
1.3.1. <i>Lehenengo fasea, Nurenberg-eko Auzitegi Internatzionala</i>	10
1.3.2. <i>Bigarren fasea, Nazio Batuen 1946, 96 (I) ebazpena</i>	10
1.3.3. <i>Hirugarren fasea, 1987.urteko Whitaker Informea</i>	11
1.4. Kontzeptuaren erabilpenaren zabalpena	12
1.5. Kontzeptua erabiltzeko dauden arazoak	13
1.6. Semelinen analisia: sarraskien muturreko biolentziatik genozidiora	
1.6.1. <i>Genozidioa ikertzerakoan dauden arazoak</i>	15
1.6.2. <i>Terminologiaren arazoak</i>	16

II. Zatia: PRAXIA, ARMENIAKO GENOZIDIOA

2.1. Testuingurua	
2.1.1. <i>Herri Armeniarra</i>	20
2.2. XIX. mendeko genozidioaren aurrekariak	
2.2.1. <i>Armeniarren lehenengo erreforma eskakizunak</i>	21
2.2.2. <i>Ondorioak</i>	
2.2.2.1. <u>Armeniako Mugimendu Iraultzailearen sorrera</u>	22
2.2.2.2. <u>Inperioaren erantzuna</u>	22
2.2.2.3. <u>Lehenengo sarraskiak (1894-1896): Zein zen hilketen helburua?</u> .	23

2.3. Gazte Turkiarrak boterean	
2.3.1. <i>Inflexio puntua: Erreformak</i>	24
2.3.2. <i>Genozidioa</i>	25
2.4. Tratatuak	26
2.5. Genozidio eztabaidatua	
2.5.1. <i>Bi korrante historiografikoen borroka</i>	27
2.5.2. <i>Gerra ekintzak aprobeixatu ziren genozidioa praktikara eramateko?</i>	28
2.6. Prosezu genozidaren analisia, J. Semelin eta G. Stanton-ren ikuspegietatik	
2.6.1. <i>J. Semelin</i>	29
2.6.2. <i>G. Stanton</i>	30
2.7. Aro garaikideko tratamendua eta ikuspegi internazionala	
2.7.1. <i>Turkiarren ezeztatzea</i>	30
2.7.2. <i>Errekonozimendu internazionalaren zabalpen geldoa</i>	31
2.8. Hausnarketa	32

Sarrera

Lan honetan genozidio kontzeptua zehazten saiatuko gara. Kontzeptu hau ikertzean hainbat zailtasun daude, handienetakoa kontzeptuak duen karga morala da, honek haren ikerketa objektiboa baldintzatzen duelako.

Hala ere, ekintza horien biktimek eta Gobernu Kanpoko Erakundeek genozidio kontzeptuaren erabilpena aldarrikatzen dute. Horrez gain, hitzaren definizio zehatza eta baliagarria izatea eskatzen dute, haien helburuak lortzeko oso kontzeptu baliagarria delako.

Baina ikerketa munduan, justizian, soziologian... ez dago kontsentsurik. J. Semelin-entzat ikerlariak duen arazo nagusienetakoa, genozidioak aztertzen dituen ekintzak dira, hau da, kontzeptu honekin definitzen diren ekintzak ankerrak eta basatiak dira, horregatik oso zaila da objektiboa izatea. Bere ustez, ikerlarien lana ekintzak ikertzea, ulertzea eta azaltzea izan beharko litzateke, objektibotasun bat izanez¹.

Genozidioa definitzeko irizpide asko daude, haien artean Stephan Katz-ena, bere ustez genozidio judua da bakarra. Israel Charny-rentzat ordea biolentzia masibo guztia genozidioa da. Beraz, hainbat motatako irizpideak daude genozidioa zehazteko². Hammermas-entzat, ikerlariak “biolentzia masiboa” aztertu behar dute, alde batetik juristek ekintza horien arduradunak aurkitu behar dituzte eta ondoren historialariak ekintza horien kausak azaldu eta ekintza solte horiei interpretazio bat eman behar diete. Prozesu guzti horiek objektibotasun eta zehaztasun zientifikoz ikertu behar dira.

Ikerketa munduan kontzeptuak duen anbiguitasuna ikusirik, lan honen lehen zatiko helburua genozidio kontzeptua ezagutzea da. Horretarako kontzeptuak bere lehenengo aplikaziotik (Nuremberg 1944) izan duen eboluzioa azaltzen saiatuko gara. Bigarren atalean ezagupen hau Armeniako kasura aplikatuko da eta gaiaren inguruan dagoen eztabaida azalduko da. Gure asmo nagusia genozidio kontzeptuaren erabilpena interes ezberdinek baldintzatzen dutela adieraztea izango da.

Genozidio kontzeptua ez da hitz bat soilik, historialariak erabili dezakegun tresna garrantzitsu bat baizik. Kontzeptu honen barnean batzen diren ekintzak,

¹ Sémelin, Jacques. “De la matanza al proceso genocida”. *Revista Internacional de Ciencias Sociales*. Ale Monografikoa 174 (2002), 7-20 orr.

² Marco, Jorge. “Genocidio y “Genocide Studies”. Definiciones y Debates”. *Hispania Nova. Revista de Historia Contemporanea*. Ale Monografikoa 10 (2012), 1-32 orr.

planifikazioa, sufrimendua, eta bestelako adierazpenak beste era baten adieraztea oso zaila izango litzateke.

Hausnarketa hau, ahalik eta modu objektiboenean egingo da. Honekin bat, materialen aukeraketa, informazio bilketa eta haien lantzea errespetu handiz egiten saiatu gara, gai honek zauri asko zabal ditzakeelako.

I. ZATIA

GENOZIDIO KONTZEPTUA

1.1. Genozidio kontzeptuaren aurrekariak eta hitza behar izatearen prozesua

Genozidio kontzeptuak bere aurrekariak izan zituen eta sortu eta gero etengabe garatzen ibili da. Gaur egun ere eboluzioan jarraitzen du, bide berriak eta zubi berriak garatuz. Lanaren atal honetan historian zehar sortutako definizioak azalduko ditugu.

XIX. mendean agertu ziren Zuzenbide Internazional bat eskatzen zuten lehenengo arazoak eta arazo horiei erantzuna emateko lehenengo hitzarmen juridikoak adostu ziren. Hitzarmen horietan Zuzenbide Internazionalaren printzipioak ezarri ziren, haietako garrantzitsuenak, 1864. urtean, “Ginebrako Hitzarmena” izan zen. Hitzarmen honen bidez militar zaurituen eta gerretako biktimen eskubideak eta “zoria” bermatzea bilatu zen. Hurrengo hitzarmena, Hagako 1869. urteko hitzarmena izan zen. Hitzarmen honek gerra ohiturak erregulatu nahi zituen, aipatzekoa da bertan onartu zen Martens Klausula. Klausula honek, gerran dauden herrialdeetako biztanleria babesten du, “Jendearen Eskubidearen” bitartez.

Bi hitzarmen hauen aplikazioa oso zaila zen, bai Zuzenbide Internazionalaren etengabeko aldaketek bai herrialdeen interesek, hitzarmenen interpretazioak eraldatzen zituztelako. Armeniako genozidioan interes hauek nabarmendu ziren eta horregatik Zuzenbide Internazionaletik kanpo geratu zen.

XX. mendean Zuzenbide Internazionalak gero eta garapen handiagoa izan zuen, hala ere, mende hasierako intelektualek Zuzenbidean eta gizarte zientzietan hura erabiltzeko arazo edo hutsune handiak ikusten zituzten. Zuzenbide Internazionala herrialde bakoitzeko interesek baldintzatzen jarraitzen zuten.

Gerra Arteko garaian, Genozidio kontzeptua sortzeko lehen pausuak eman ziren. Garai hartako Zuzenbide Internazionalako espezialistek eta intelektualek Legedi Internazional eta Auzitegi Internazional baten beharra ikusi zuten, eta egin zituzten proposamen guztiek hori lortzea zuten helburu³.

1933. urtean Zuzenbide Internazionalari buruzko konferentzia antolatu zen Madrilan. Bertan, I. Mundu Gerrak sortutako atsekabe eta sufrimenduaren ondoren, R. Lemkin-ek, gertatu ziren hilketa masiboak epaitzeko beharra ikusi zuen. Bere lanak Siriako, Greziako eta Armeniako hilketa masiboetan oinarritu ziren, hilketa masibo

³ Miguez Macho, Antonio. *La genealogía genocida del franquismo. Violencia, Memoria e Impunidad*. Madrid: Abada Editores S.L., 2014, 29-30 orr.

horiek Gazte Turkiarren Alderdiak planifikatu eta bete zituen. Horretaz gain, European sortu ziren ultraeskuineko alderdi berriek eta gizartean txertatuta zegoen gorrotoak, bi delitu berri proposatzera bultzatu zuten R. Lemkin. Lehenengoa *ankerkeria* zen; delitu honen barnean indibiduen suntsiketa fisikoa sartuko litzateke, suntsiketa horren arrazoiak, talde nazional ezberdin batekoa izatea, erlijio ezberdin bat jarraitzea edo “arraza talde” ezberdin batekoa izatea izanik. Bigarrena *bandalismoa* zen, delitu honek lehen aipatutako taldeen kultura suntsitzeari erreferentzia egiten zion.

Lemkinen lehen saiakera honetan taldeen garrantzia azpimarratu zen, indibiduen gainetik beste maila batzuk zeudela zehaztu zuen, taldeak direnak. Bere ekarpen handia izan bazen ere, ez zuten onartu. Hala ere, bere etorkizuneko lanen oinarria izan zen.

1.2. Nork asmatu zuen?

Neologismoa 1944. urtean R. Lemkinek asmatu zuen. Lemkinen ustez, behar berriek termino berriak eskatzen zituzten. Hala ere, Zuzenbidearen barruan bazituen bere aurrekariak, hain zuzen ere, “justizia unibertsalaren” arloan.

II. Mundu Gerra amaitzeaz zegoenean, 1944. urtean, Lemkinek *El dominio del Eje en la Europa ocupada*, idatzi zuen eta bertan genozidio kontzeptua lehenengo aldiz erabili zen. Kontzeptua bitan zatitzen da, *geno* (tribu, arraza) hitz grekoa eta *cide* (erail) hitz latindarra batuz genozidio kontzeptua asmatu zuen. Berak, nazio edo talde etniko baten suntsiketa moduan definitzen zuen. Praktikan, indibiduoak edo bizitzaren oinarriak suntsitzeko helburua duen plan koordinatu bat litzateke, indibiduen suntsiketa horrekin “talde” ezberdinak suntsitzeko helburua duena. Hortaz, krimen honek “talde” baten identitatea suntsitu nahi du. Gainera, haren ustez genozidioak bi etapa ditu: lehenengo etapan zapaltzailea talde zapalduen patroia etnikoa suntsitzen saiatuko da eta bigarren etapan, talde zapaltzailea haren patroia nazionala inposatzen saiatuko da.

Lemkinen ustez, genozidioa nazionalismoaren elementuen kontrako erasoez baliatzen da, eraso horiek hainbat arloren kontra egiten dira: lehengo arloa politikoa izango litzateke, eraso ezberdinen bitartez erakunde lokalak suntsitzen dira, zapaltzailearen patroia ezarri. Gizarte arloan, bertako legeak eta auzitegiak debekatzen dira. Horretaz gain talde horren kultura eta hizkuntza erabiltzea ere galarazten da. Talde zapalduaren banka eta ekonomia suntsitzeko ahalegina egiten da, honen bitartez talde

zapalduaren diru mugimenduak kontrolatu eta bizi maila gutxitzeko. Kontrol biologikoa ere ezartzen saiatzen da, hau da, zapalduta dagoen talde nazionaleko jaiotza tasa kontrola. Zapalkuntza fisikoa ere gertatzen da, batez ere jatekoaren diskriminazioaren bitartez. Metodo horiez gain, hilketa masiboak, errepresio eta opresio erlijiosoak eta opresio morala erabiltzen dira. Ondorioz, genozidioa indibiduoak erahiltzea baino gehiago da: talde ezberdinen identitatea suntsitzen saiatzea izango litzateke. Hitzak hiru fase ebolutibo izan zituen eta fase ezberdin horietan kontzeptuaren hasierako esanahiak aldaketa garrantzitsuak izan zituen⁴.

1.3. Kontzeptuaren eboluzioa

1.3.1. Lehenengo fasea, Nuremberg-eko Auzitegi Internazionala

II. Mundu Gerraren irabazleek, gertatutako ankerkeriak eta krimenak epaitzeko beharra ikusi zuten, horregatik Nurembergeko Auzian genozidio kontzeptua onartu zuten. Nurembergeko Auzia “justizia internazionala” aplikatu zen lehenengo kasua izan zen. Erakunde berezi honetan lehenengo aldiz hainbat ideia berri erabili ziren, denborarekin Justizia Internazionalako euskarriak izango zirenak: “gerra krimenak”, “bakearen aurkako krimenak” eta “gizateriaren kontrako krimenak”. “Gizateriaren kontrako krimen” kontzeptu honek sortzen duen iruditik sortu zen genozidio adigaia. Hala ere, ezaugarri propioak ditu, bere karakter kriminalaz gain, indibiduoak talde baten barruan dauden biktimak balira bezala kontuan hartzen ditu-eta.

1.3.2. Bigarren fasea, Nazio Batuen 1946, 96. (I) ebazpena

Bigarren Mundu Gerrako krimenen ostean, definizio argiago bat izateko genozidioa sailkatu egin behar zela ikusi zuten. Nazio Batuen 1946, 96. (I) ebazpenak “talde” guztien eskubideak defendatzen ditu, talde ezberdinen edota indibiduen bereizketarik egin gabe.

Ebazpen honek, genozidioa giza talde ezberdinei existentzia ukatzea eta ukapen horrek gizateriarentzat sortzen dituen galerak (kulturalak edo beste batzuk) kontuan hartzen dituen kontzeptu moduan definitzen du, beraz, Legedi Orokorraren eta Nazio

⁴ Lemkin, Raphael. *El dominio del eje en la Europa Ocupada*. Buenos Aires: Prometeo Libros, 2008, 153-156 orr.

Batuen helburuen aurkakoa da. Genozidioaren definizio honek, zapaltzaileak talde ezberdinak suntsitzeko duen borondatea (erlijiosoa, politikoa edo arrazakoa) azpimarratzen du.

Genozidioa Saihesteko eta Zigortzeko Konbentzioan, 1948 urtean, 96. (I) ebazpena gehiago zehaztu zen, genozidioaren esanahia berriz aldatuz. Urte horretatik aurrera arrazoi politiko, erlijioso eta nazionalengatik gizatalde ezberdinak suntsitzea kontzeptutik kanpo geratuko litzateke. Definizio honek talde politikoak eta kulturalak ez ditu kontuan hartzen, horregatik kontzeptuaren interpretazioa zabalagoa eta malguagoa izan daiteke.

Talde politikoen baztertzea ez zen kasuala izan, politika internazionalen zeuden eztabaidek eta interesek erabaki hori baldintzatu zuten. Erabaki honek etorkizunerako hainbat arazo sortuko zituen. Lemkinek erabaki horren aurka egin zuen, konbentzio honek adigaiaren hasierako helburuak kolokan jartzen zituelako. Esanahi berri hau, etorkizunean genozidioen kontra egingo ziren akordioen oinarria izan zen. Aldaketa hau, *lobby* ezberdinen presioa zela eta burutu zen. Henri Donnedieu de Vabres magistratu frantsesak ere aldaketa horren aurka egin zuen. Haren ustez, talde politikoen baztertzeak, haien kontrako delitu ezberdinak legitimatzen zituelako.

Konbentzioa 1948. urtean onartu zen, ekintza batzuk debekatzen zituen bitartean beste batzuk legitimatzen zituen, beraz, emaitza ez zen guztiz positiboa izan. Nazio Batuen kontalariak (*relator*) erabaki hauen kontra egin zuten. Ahots pisutsuak izan ziren, erabaki hauek praktikara eraman behar zituztenak zirelako⁵.

1.3.3. Hirugarren fasea, 1987. urteko Whitaker Informe

1984 eta 1985. urteen bitartean NBE-k (Nazio Batuen Erakundeak) herrialde eta erakunde ezberdinei giza-eskubideei buruzko galdetegi bat bidali zien. Galdetegi horien emaitzekin, hainbat espezialistek (haien artean Whitaker) Whitaker Informe prestatu zuten, informe honetan aurreko konbentzioetan hartutako erabakiak kritikatu eta “taldeen” baztertze hori salatzen da. Gainera beste talde batzuk genozidio kontzeptuan integratu behar zirela eskatzen zuten: sexualak, ekonomikoak eta sozialak.

Konbentzio ezberdinek, talde politikoak trinkotasun falta zuten taldeak zirela zehaztu zuten, hau da, besteak baino denbora gutxiago eta haien ustean anbiguotasun

⁵ Miguez Macho, Antonio. *La genealogía genocida del franquismo...*, op. cit., 41-45 orr.

handiagoa zutelako baztertu behar ziren. Gaur egun badakigu Auzitegi Internazional eta Justizia Internazional efektibo bat izateko talde ezberdin horien onarpena ezinbestekoa dela.

1999. urteko Erromako Estatutuak, 1948. urteko konbentzioan onartu zen definizio berbera erabili zuen Witaker Informearen alde batera utziz. Modu kontserbadore batean garatutako estatutu bat zen.

Hala ere, azkeneko batzar eta konbentzioak kontzeptuaren hasierako esanahia berreskuratzen saiatu dira. Definizio berriek diktadura edo erregimen autoritarioen azpian dauden talde politiko-sozial ezberdinei babes emango liekete. Horrela Lemkinen nahia eta helburuak (II. Mundu Gerrako ankerkeriak ez errepikatzea) berreskuratuko lirateke⁶.

1.4. Kontzeptuaren erabilpenaren zabalpena

Historiografian gutxi erabili den kontzeptua izan da, “*genocide studies*” korrontearen barruan kontzeptuaren gehiago erabili izan den arren. Dena den, korronte hau jarraitzen duten historialariak oso gutxi dira. Haien genozidio kontzeptuak kutsu juridikoa du eta interpretazio historiko bat egiteko ahalmen txikia.

Habermasen ustez, genozidioaren balio historiko eta juridikoak batu egin behar dira, biek ikerketa helburu bera dutelako, juristek delituen kausak ikertzen dituzte eta historialariek interpretazio bat ematen diete gertakariei. Beraz, genozidio kontzeptua ez da juristen ondarea bakarrik, haren ustez historialariek ere kontzeptua erabili behar dute.

Gaur eguneko historialariak genozidioaren atzean dauden prozesuak eta gero gertatzen diren prozesuak zehazten saiatu dira. Gregory Stanton-ek genozidio bat egiteko planak zortzi fase zituela zehaztu zuen, hala ere, fase horiek ez dira ordenenean eman behar, baina guztiak eman behar dira genozidio bat izateko:

1.Sailkapena: kultura guztiek jendea klasifikatzeko sistema bat dute, “haiek eta gu”.

2.Sinbolismoa: aurreko atalean sailkaturikoak sinbolo, kolore edo jazkera ezberdinengatik ezberdintzen ditugu.

3.Gizagabetzea: talde zapaltzaile batek zapalduaren existentzia ukatzen du.

⁶ Lemkin Raphael. *El dominio del eje...*, op. cit., 405-474 orr.

4.Antolaketa: genozidioa beti planifikatuta edo antolatuta dago, gehienetan Gobernu bat izango da egilea. Bere burua ez zikintzeko askotan miliziak erabiliko ditu.

5.Polarizazioa: talde ezberdinetako muturreko joerek, bi taldeak polarizatzen dituzte.

6.Prestaketa: Biktimak identifikatu ostean, talde zapaltzailetik banatu egiten dira, banaketa honen zergatiak, normalean etnikoak eta erlijiosoak izanik. Hala ere, banaketak zergati anitzak izan ditzake. Banaketa horren ostean, biktimek identifikazio ikurrak eramango dituzte.

7.Sarraskia: Talde zapaltzaileak, talde zapalduaren kontrako hilketa masiboak gauzatzen ditu.

8.Genozidioaren ukapena: zapaltzailearen ustez akzio horietan ez da krimenik egon. Krimenaren frogak eta lekukoak suntsitzen saiatzen da eta boteretik bota egin arte edo garaitu arte ekintza kriminalak egiten jarraituko dute. Boteretik bota ostean atzerrira joko dute, askotan atzerriko herrialdearen babesa dutelarik. Preso hartzen badituzte, kasu horiek epaitzeko auzitegi berezi bat eratzen da.

Kasua epaitu ondoren, ikertzeko dagoen arazo nagusia zapaltzaileek egiten duten froga garbiketa izaten da. Frogak ezkututzeaz gain, hildako jendea erregistroetatik ezabatu egiten dute eta zapalduen gorpuak fosetan sartzen dituzte, historialarien lana oztopatuz.

Azkenik, bizirik geratzen direnen prozesua azaltzeko, *memoria historikoa* kontzeptua erabili da. Zapalduetako askok *memoria isila* eratuko dute, hau da, haien barnean gordeko dute, bizi diren herrialdearen boterea zapaltzaileek dutelako. Beste mota bateko memoria *iheslarien memoria* da, hau hainbat arlotan (politika, gizartea...) aldarrikatuko da⁷.

1.5. Kontzeptua erabiltzeko dauden arazoak

Ikerlari eta korronte ezberdinen artean adigaiak erabilpena eta esanahia definitzeko adostasun falta dago. Hainbat autoreren ustez, “juduen genozidioa” izan zen genozidio bakarra. Hauek korronte sionistaren jarraitzaileak dira, korronte honetako

⁷ Miguez Macho, Antonio. *La genealogía genocida del franquismo...*, op. cit., 74 orr.

autorerik garrantzitsuenetakoa Stephen Katz da. Beste muturrean, Israel Charny-ren korronea egongo litzateke, berak genozidioaren esanahi askoz ere zabalago bat erabiltzen du.

Oraindik ikerketa eta justizia arloetan kontzeptuaren inguruko eztabaida handiak daude, hala ere, eztabaida guztiak hainbat ardatzetan oinarritzen dira: lehenengo arazoa zapaltzailea nor den definitzerakoan sortuko litzateke, batzuen ustez Estatua delako ekintza genozidak egin ahal dituen bakarra, ekintza horiek egiteko baliabideak eta bideak kontrolatzen dituelako. Hala ere, azkeneko urteotan hau horrela ez dela ikusi dugu. Bigarren ardatza, genozidioak duen nahitasuna litzateke, hau da, genozidioaren ezinbesteko baldintza nahita egina izatea den ala ez. Hirugarren ardatza, genozidioa burutzeko ekintzak mugatzea izango litzateke.

Baina, eztabaidarik nagusia kontzeptuak duen izaerari buruzkoa da, hau da, eksklusiboa (itxia) edo inklusiboa (zabala) den. Azken arazo honetatik bi eskola ezberdin sortu dira, *Holocaust Studies* eta *Genocide Studies*.

Holocaust Studies: eskola honen definizioa “zehatza” edo eksklusiboa da. Eskola honetako ikerlariak genozidioaren nahitasuna hobeto azaltzen dute, hala ere, ikerketa eremua asko mugatzen dute. Gainera, talde honetako autoreek beste diziplinenganako interes txikia dute eta argumentu oso itxiak baliatzen dituzte.

Genocide Studies: talde hau teoria inklusiboen aldekoa da, ezaugarri hau *Holocaust Studies* taldeko ikerlariak askotan kritikatu dute, haien ustez oso kontzeptu ambigua sortzen dutelako. Hala ere, talde honen alderdirik positiboena diziplina ezberdinen arteko elkarlana da, horregatik bere ekarpen zientifikoak hainbat arloetara zabaltzen dira.

Bi eskolen arazo nagusienak, haien arteko komunikazio eza eta artifizialki sortzen duten konpetentzia dira. Denbora luzean zehar, bi taldeetako ikerlariak genozidioaren definizioa zehazten saiatu dira eta biolentzia masiboaren eren ikerketak alde batera utzi dituzte ordea. Talde bien isolamendua apurto egin beharko litzateke, horretaz gain, diziplinen arteko elkarlana bultzatu eta biolentzia formen ikerketak bultzatu beharko lirateke.

Historialarien belaunaldi berri batek, justizia genozidio kontzeptuaren beharrezko atal bat izan behar dela diote, genozidioen egileak eta zergatiak ikertzerakoan soziologiaren eta historiaren arteko tentsioak agerian uzten direlako. Ikerlari hauek soziologia sarritan kritikatzeko dute, haien ustez balio unibertsaleko definizioak egiten saiatzen delako. Haien ustez, soziologiak gizarte baten helburuak eta

intentzioak ezagutu ditzake. Korrante berri honek diziplina ezberdinen arteko elkarlanaren alde egiten du, baina dena malgutasun berri batek inguratzen duelarik.

1.6. Semelinen analisia: sarraskien muturreko biolentziatik genozidiora

“Se estudia la naturaleza de la violencia extrema que se manifiesta en una situación histórica para determinar si el proceso de destrucción apunta a la erradicación total de una colectividad”⁸.

Semelinek gehiegizko biolentzia duten prozesu hauek zelan ikertu behar diren aipatzen du:

- Kontzeptuari kutsu juridikoa kendu behar zaio.
- Hilketak masiboak, prozesu baten barneko ekintzak dira, beraz prozesua bera ikertu behar da.
- Ikerketak egiterakoan problematikak eraiki eta planteatu behar dira, horrela ikerketa erraztu eta kontzeptuaren definizioa zehaztuko da.

1.6.1. Genozidioa ikertzerakoan dauden arazoak

Semelinen ideiak jarraituz, genozidioen ikerketan traba egiten duten arazoak honakoak izan daitezke:

1. Aztertzen diren ekintzak ikaragarriak dira eta zapaltzaileek artxiboetako informazioa ezabatu dute.
2. Genozidioa ulertzeko eta ikertzeko diziplina askoren elkarlana behar da.
3. Ikerkuntza eremu hau oso berria da, horregatik muga asko ditu: hizkuntza, metodologia, terminologia...
4. Genozidio terminoa, justiziaren eta giza zientzien mugan dago eta horrek borroka terminologiko garrantzitsu bat eragiten du.

Haren ustez, historialariek kontzeptuari karga juridiko guztia kendu eta ikerketetan hiztegi ez juridiko bat erabili beharko lukete. Horrela, ikerketa guztiak ikuspegi historiko batetik eraikiko dira.

⁸ Sémelin, Jacques. “De la matanza al proceso...”, op. cit, 8 orr.

1.6.2. Terminologiaren arazoak

Semelinek “sarraski” terminoaren erabilpena defendatzen du, termino honek talde batek indibiduo babesgabeak birrintzeko erabiltzen dituen ekintzak adierazten ditu. Baina sarraski guztiak ez dira genozidioak (ekintzen nahitasuna eta zapaltzailearen logika kontuan hartu beharrekoak dira), sarraskia pertsona babesgabeak suntsitzeko ekintzak dira eta haren emaitza talde oso baten suntsitzea izan daiteke.

Genozidioak prozesuak dira, tradizio politiko zehatz baten ostean, espazio kultural konkretu batek eragiten duenean eta testuinguru internazional bat dagoenean sortzen direnak. Prozesu horiek antolatuta daude eta helburua talde batekin akabatzea da, askotan Estatuak era zorrotz batean zuzentzen dituzten prozesuak dira, hala eta guztiz ere, biolentziadun inertzia honek inprobisatutako ekintzak sortu ahal ditu.

Semelinen ustez, suntsitze nahia genozidioa izateko nahitaezko ezaugarria da. Talde edo pertsonen suntsitzeaz gain, haien kultura eta ekarpen materialen suntsitzea ere kontuan hartu behar dugu. Zapaltzaileak bere helburua betetzeko talde ahulari gizatasuna kentzen dio. Gizatasun kentze hori baliatuz talde zapaldua deportatu egingo du eta deportazioekin milaka pertsona hil egingo ditu eskura dituen medio guztiekin talde horretako indibiduoak hiltzen saiatuz.

Helburua lortzeko zibilak erailtzen ditu, bere ekintzetan talde osoa edo indibiduo solteak erail ahal ditu. Ekintza hauek egiten dituenak beti justifikatu egingo ditu gerra ekintzak direla esanez, kontzeptu politikoak atxikiz edo testuinguru internazionala baliatuz.

Egoera historiko ezberdinek, prozesu hauen helburuak zeintzuk diren zehazten lagundu digute eta helburu horiek bi dira, sumisioa eta erradikazioa. Erradikazioa da lan honetan interesatzen zaigun helburua, hura baitzen Turkiarrek Armeniarrekin zuten helburua.

Hilketa handiak genozidioak direla esaten da, dena den, balorazio sinplista hori alde batera utzi eta zapaltzaileak duen helburu suntsitzailea aztertu eta talde hori suntsitzeko dituen irizpideak ikertu behar dira. Analisi honetan kutsu juridikoa alde batera utziko dugu eta Armeniako sarraskia genozidio bat izan zela zehazten saiatuko gara.

Ikerlarien helburua gertaerak eta gertaera horien atzean dauden prozesuak azaltzea eta sakontzea izan beharko litzateke. Terminoak eta kategoriak, debateak eta ezagupena sakontzeko balio duten erremintak dira, baina gure ikerketa ez da horretan

zentratu, Armeniako kasuan baizik. Hala ere, badakigu gai oso polemikoak direla eta horrek ikerketak zailtzen dituela⁹.


⁹ Ibidem., 7-20 orr.

II. ZATIA

PRAXIA: ARMENIAKO GENOZIDIOA

Lemkinek genozidio kontzeptua asmatu zuenean, Tala Pasha-ren erregimenak armeniarren kontra egin zituen ankerkeriak hartu zituen kontuan, hilketa masibo horietan miloi bat armeniar hil zituzten. 1920an krimen hauen antolatzaileak Konstantinoplan (gaur Istanbul) epaituak izan ziren. Talat Pasha, Enver Pasha eta Cemal Pashari krimen hauek antolatzeaz gain, krimenok burutzea eta krimen horiek egiteko medioak jartzea leporatu zieten. Hirurek Turkiatik ihes egin zuten eta erbestean bizi izan ziren.

Armeniako genozidioa ez zen bat-batean gertatu, prozesu luze baten ondorioa izan zen. Prozesu luze hori gertatzen ari zen bitartean, armeniarrek diskriminazioa eta jazarpena pairatu zuten. Inperio Otomandarrak, Lehen Mundu Gerrako egoera aprobetxatu zuen armeniarrek akabatzeko.



Irudia 1. Anatolia Lehen Mundu Gerran¹⁰

¹⁰ Lewy, Guenter. *Las Masacres Armenias en la Turquía Otomana un Genocidio Controvertido*. Madrid: Editorial TAM, 2009, 5 orr.

2.1. Testuingurua

2.1.1. Herri Armeniarra

Inperio Otomandarreko populazioa kontutan hartzen badugu, Armeniarrak populazio gehien zuten gutxiengoa ziren (XX. mendearen hasierara arte, bi miloi pertsona inguru ziren). Populazioa oso sakabanatuta zegoen, gehiengoa hegoaldeko probintzietan (*vilayets*) edo Armenia handian bizi ziren. Hala ere, Anatoliako hegoaldean, mediterraneo inguruan eta Konstantinoplan talde txikiago batzuk zeuden, Armenia Txikia edo Cilia deiturikoak.

Inperio Otomandarra sortu zenean, 1453. urtean, metropoliei autonomia gradu bat eman zieten. **Millet-ak** (talde nazionala) sortu ziren, talde hauen burua patriarka bat zen: komunitateak eta gobernuak errekonozitu behar zuten bitartekaria. Kargu honek ez zuten botere politikorik.

Armeniarrak bigarren mailako biztanleak ziren eta haien lanak sektore jakin batzuetara bideratu zituzten. Armenia Txikian, bankariak, merkatariak eta gobernuaren interpreteak ziren; Armenia Handiko biztanle gehienak, aldiz, nekazariak ziren. Armeniarrak bizi ziren lurraldeetan ere gutxiengoa ziren. Gobernuak musulmanen emigrazioak bultzatu zituen, mugak aldatu zituen eta egin ziren erailketek Armeniarren populazioa gutxizearen helburua bete zuten. Ekintza hauek Armenia independente bat lortzeko aukerak zapuztu zuten, baina Europatik iritsi ziren ideia liberalek eta Gobernuak inposatu zizkien zerga altuek, Armeniarren kontzientzia eragin eta helburu hori lortzeko nahia piztu zuten.

Armeniarrak, ekialdeko probintzietan meseta menditsu batean bizi ziren kurduekin batera. XIX. mendearen bigarren erdialdean, armeniarren eta kurduen arteko harremanetan tentsioa areagotu zen, armeniar askok jauntxo kurduekin feudalismoko basailutza mantentzen zutelako. Armeniarrek, nomada kurduen neguetako beharrak asetzen zituzten, horretaz gain, uzten zati bat ordaintzen zieten babesaren truke. Inperioa gainbeheran zegoenean, Gobernuan ustelkeria zabaldu zen eta nekazari armeniarren egoerak txarrerantz jo zuen, gainera ezin zituzten kurduak inposatzen zizkieten zergak ordaindu, horrek kurduen haserrea sortu eta armeniarrak erasotzea eragin zuen. Otomandarrek ez zituzten armeniarrak defendatu, haien armada ahula zelako edo gelditzeko nahirik ez zutelako.

XIX. mendean armeniarren egoera txarrerantz joan zen. Egoera honek armeniarren kontzientzia nazionala eta iraultzaren aldeko sentimendu bat piztu zuen. 1832. urtean, Inperio Otomandarra krisi internazional bat pairatzen ari zen eta momentu honetan hasi zen bere gainbehera. Nabarmendu beharrekoa da Errusiak Armeniako historian duen garrantzia ¹¹.

2.2. XIX. Mendeko genozidioaren aurrekariak

2.2.1. Armeniarren lehenengo erreforma eskakizunak

Krimeako gerraren ondoren, 1856. urtean, “Pariseko Tratatua” sinatu zen, non gutxiengo nazionalen aurkako ekintzak debekatu ziren. Armeniarren lehenengo mugimendu erreformazale honek, oinarrizko eskubideak, lege berdintasuna eta instituzioetan sartzea eskatzen zuen.

Inoiz ez zuten berdintasuna lortu eta bigarren mailako biztanleak izaten jarraitzen zuten. Gobernuak ez zituzten haien eskaerak onartu, Inperio Otomandarreko musulmantzat tradizio sozio-erlijiosoak traizionatzea baitzen. Are gehiago, ez zituzten armeniarrek armadarako errekrutatzen, Gobernuaren ustez Inperioaren segurtasuna arriskuan jartzen zutelako. Beraz, ez musulmanak armadatik kanpo geratzen ziren, baina familia ez musulmanen gizonak, “*Badal*” izeneko zerga ordaindu behar zuten. Talde ez musulmanak, musulmanen menpeko talde bezala onartzen zituzten, baina tolerantzia hori errez intolerantzia bihurtzen zen.

Etorkizuna markatuko zuen gertaera bat 1876ko Bulgariako Matxinada izan zen (Turkietak Bulgariako txikitu zituzten). Matxinada honen ondorioz, Inperio Otomandarra eta Errusia gerran sartzen dira eta Errusiak garaipena lortu zuen. Garaipen honen ondorioz *San Estefanoko Ituna* sinatu zen, tratatu honetan lehenengo aldiz armeniarren egoera islatu eta adierazi zen. Armeniarrek babes juridikoa eta fisikoa eskatzen zuten otomandarren errepresaliak gelditzeko. Erreformatik gauzatzen ziren bitartean errusiar tropak bertan geratuko ziren¹².

¹¹ Ibidem., 3-10 orr.

2.2.2. Ondorioak

2.2.2.1. Armeniako Mugimendu Iraultzailearen sorrera

Armeniarrei potentzia Europarrek hartutako erabakiek huts egin zieten, “Berlineko Tratatuaren” ostean potentzia Europarrek ez baitzituzten Inperio Otomandarreko gutxiengoak lagundu. Horregatik Armeniako intelektualak antolatzen hasi ziren.

1890. urtean Armeniaren autonomia eskatzen zuten bi alderdi sortu ziren: bata *Hentchak* Alderdi Iraultzailea eta *Tashnak* edo Armeniako Federazio Iraultzailea bestea. Alderdi hauek ez zuten ekintza iraultzailerik egin, hala ere, prentsaren bidez talde etnikoaren nazionalismoa indartu zuten. Aldarrikapen horiek Gobernuarentzat mingarriak izan ziren, haientzat Inperio Otomandarraren apurtzea ekarriko zuelako¹³.

2.2.2.2. Inperioaren erantzuna

Armeniarrek aldarrikaturiko erreforma hauek izua zabaldu zuten eta Gobernuaren haserrea piztu zuten, ondorioz, armeniarren aurkako neurriak hartu eta erreformak gelditzeko ekimenak prestatu zituzten:

- A. Lehenengo neurrian, Gobernuak barrutiak berregituratu zituen, berregituraketa horren helburua armeniarren biztanleria murriztea izan zen. Helburua ez zuten bete baina biztanleria banatzen saiatu ziren.
- B. Zapaltzaileek Armeniarrak bizi ziren zonaldetara milaka errefuxiatu bidali zituzten eta Kaukaso eta Balkanetako milaka musulman ere bidali zituzten. Helburu nagusia Armeniarrak desorekatzea eta gorrotoa zabaltzea zen.
- C. Aurreko ekintzek ez zuten helburua bete. Porrot horien ondorioz, zapaltzaileak 1894-1896. urteen artean Armeniarren kontrako sarraskiak egin zituen¹⁴.

¹³ Ibidem., 11-12 orr.

¹⁴ Hintlian, George. “Genocidio Armenio”. *Historia y Política*. Ale Monografikoa 10 (2003), 74 orr.

2.2.2.3. Lehenengo sarraskiak (1894-1896): Zein zen hilketen helburua?

Otomandar Inperioa zabalpen inperialista oldarkor betean ari zen, Europa (Balkanak), Asia eta Afrikan batez ere. Armeniarrek testuinguru honetan eskatu zituzten eskubideak. Gobernuak, Armeniarrak Europako potentzien laguntza eskatu eta eskuratuko zutela uste zuten. Gainera, Armeniarrek zituzten abileziak (mediku, artisau, ...) zapaltzeko aitzakia moduan erabili zuten, Gobernuarentzat abilezia horiek musulmanen hiri bizitzan negatiboki eragiten zutelako, inbidia, liskarrak... eraginez. Denbora gutxian bi taldeen arteko gorrotoa asko handitu zen.

1894. urteko udan Sassun hiri armeniarra gehiegizko zergen kontra matxinatu zen. Matxinada honen bultzatzaileak talde iraultzaile armeniarrak ziren. Kazike kurduei ordaintzen zieten zerga kritikatu zuten eta ez zuten ordaindu. Armeniarrak bizi ziren auzo guztietara hedatu zen biolentzia eta bortizkeria horren gailurra 1896. urtean heldu zen, otomandarrek matxinada horren ondorioz armeniarrak (batez ere, Konstantinoplan) sarraskitu zituzten.

Lehenengo sarraski hauek hirietako gizonen kontrakoak izan ziren eta denbora laburrean burutu ziren. Sarraski hauen helburuak, armeniarren ekonomia, kultura eta jendea psikologikoki hondoratzea ziren. Armeniarrek ez zuten erresistentziarik jarri eta potentzia Europarrek ez zuten eskurik hartu. Gobernu Otomandarrak armeniar lurren kolonizazioa bultzatu zuen gainera, horren ondoren kurduak armeniar lurren jabe bihurtu ziren.

Armeniarren aginte lokalek eta iraultzaile armeniarren propagandak beldur eta tentsio giroa sortu zuten, potentzia Europarren laguntzak (hitzezkoa bakarrik) Otomandarren haserrea eragin zuen eta honen ondorioz sarraski handiak egin ziren. Europako interbentzioa azalekoa eta balio gutxikoa izan zen.

Helburu nagusia armeniarren garapen kulturala, ekonomikoa eta armeniarren gizarte osoa psikologikoki hondoratzea zen. Ekintza horien arrakasta handia izan zen, biktimek ez zuten erresistentzia handirik jarri eta zapaltzaileak ez ziren zigortuak izan. Ekintza guzti hauek lehen mundu gerraren atarian gertatu ziren eta hura bultzatu zuten ekintzetako batzuk izan ziren¹⁵.

¹⁵ Lewy, Guenter. *Las Masacres Armenias...*, *op. cit.*, 21-28 orr.

2.3. Gazte turkiarrak boterean

1908. urtean, Gazte Turkiarren mugimenduak edo “Batasun eta Garapenaren Batzordeak” (BGB) Abdul Hamid (sultana) boteretik kendu zuen. Alderdi politiko honek Iraultza Frantsesaren ideiak aldarrikatzen zituen, baina boterera hartu zutenean ez zituzten aplikatu.

Atzerriko politikaren gestioa txarraren ondorioz lurralde askoren galera gertatu zen: Pertsiaen zati bat, Crimea, Grezia eta Egipto galdu zituzten. XX. mendearen hasieran inperioaren desintegrazioa gailurrera iritsi zen, Gazte Turkiarren agintariak adoregabetuz eta egoera honen ondorioz, sentimendu nazionalista bat piztuz. Momentu horretan Gazte Turkiarren alderdiak bere oinarri politikoak aldatu zituen, hasierako pentsamolde otomandarrak (inperio multinazionala eta jendearen eskubideen garrantzia azpimarratzea) eta ideia liberalak alde batera utzi eta nazionalismo turkiarra garatu zuten: korrante berri honek Inperio Otomandarraren ideia batzuk eta panislamismoa bateratzen zuen.

2.3.1. *Inflexio puntua: Erreformak*

Armeniarrek gero eta egoera txarragoan bizi ziren. 1912. urtean Armeniako agintari politiko eta erlijiosoek erreformen nahia adierazi zuten berriz. Eskaera horiek gauzatzeko, delegazio berezi bat sortu zuten eta mugimendu politiko hauen helburu nagusia Europako potentzien laguntza bilatzea zen, horrela erreformak bideratu ahal izateko.

Erreformak hauek ziren:

- Bi inspektore europarrek neurriak aplikatu eta betetzen zirela kontrolatuko zuten.
- Armeniarren hizkuntza administrazioan eta justizian onartu behar zen.
- Armeniarrek zerbitzu militarra segurtasunez beteko zuten bertako base baten.
- Funtzionarioen errekrutamendua berdintasunez egingo zen, musulmanen eta armeniarren administrazioan parte hartzeko eskubideak parekatuz.
- Batzorde municipalen ordezkariak proportzionala izango zen.

1914. urtean behin-behineko akordioa izenpetu zen, baina guztia ez zen positiboa izan, akordioaren bi puntuk armeniarrei kalte egingo zieten:

- Gazte Turkiarrak europar ikuskarien kontrola onartzera bideratu zituzten adosturiko neurriak martxan jartzean.
- Akordio honetan, errusiarrek paper garrantzitsua izan zuten eta egoera honek urduritasuna sortu zuen Gazte Turkiarren artean.


2.3.2. Genozidioa

1914. urtean armeniarren eta turkiarren arteko gatazka gailurrera iritsi zen. Gobernuak Armadaren mobilizazio orokorra dekretatu zuen, 400.000 gizon armeniar armada turkiarrean integratu ziren eta armadan integratuta zeudenean armak kendu eta fusilatu egin zituzten. Horrela genozidioari hasiera eman zioten.

Genozidioaren bigarren fasea, 1915. urteko apirilean hasi zen eta intelektual armeniar asko fusilatu zituzten. Urte bereko maiatzean Gobernu Otomandarrak Deportaziorako Lege Tenporala martxan jarri zuen.

Gobernuaren ustez, armeniarrek Errusiaren aldeko ekintzak egin ahal zituzten, aitzaki hori erabiliz emakumeak eta agureak zehaztu gabeko tokietara lekualdatu behar zirela agindu zuten. Hil martxak direneko prozesua eragin zuten eta denbora gutxian miloi bat armeniar baino gehiago erahil zituzten¹⁶.

¹⁶Hintlian, George. "Genocidio Armenio", op. cit., 80-81 orr.



Irudia 2. Genozidioaren mapa¹⁷

2.4. Tratatuak

1918 eta 1920. urteen artean hainbat bake tratatu sinatu ziren, denak ez ziren Armeniarrei buruzkoak baina armeniarren kontrako ekintzei buruzko artikulua zituzten. Lehenengoa *Versalleseko Ituna* izan zen, 1919. urteko ekainean firmatu zena Aliatuen eta Alemaniaren artean. Itun honekin Lehen Mundu Gerrari amaiera eman zitzaion.

1920. urtean “Sevres-eko Tratatu”, Turkiak eta Aliatuek sinatu zuten (Errusia eta AEB izan ezik). Azken tratatu honen bidez, Turkiari inperioko lurraldeak kendu zitzaizkion eta herrialde berria Anatolia eta Asia Txikian kokatua egon behar zela zehaztu zuen. Bi estatu berri sortu zituzten, kurduen estatu autonomoa (Kurdistan) eta Armeniako Estatu aske eta Independentea (Armeniako Errepublika).

Nazionalista turkiarrak Gobernuaren kontra matxinatu ziren eta burua Mustafa Kemal Atatürk zen. Greziarren eta Armeniarren kontra borrokatu ziren, Anatolia eta Ekialdeko Traziaren kontrola mantendu zuten eta Italia eta Frantziak kontrolatzen zituzten zonaldeak berreskuratu zituzten. Berreskuraketa horiek, 1923. urteko *Lausanako Konferentzian* onartu ziren.

¹⁷ Ajemian Ahnert, Margaret. *El puñetazo en la puerta. Una travesía por el sombrío genocidio armenio*. Siglo XXI editores S.A., 2010, 8-9 orr.

1924. urtean *Lausanako Akordioa* Grezia, Turkia eta Aliatuek izenpetu zuten. Bake akordio bat zen eta Turkiako muga berriak zehaztu zituzten. Akordio honekin, Sevresko akordioa baliogabetu zen eta horretaz gain Turkiari ordaindu beharreko kalte ordainak kendu zizkioten eta armeniarren lurralde eta aberastasunak eskuratu zituzten.

Nazionalistek ez zuten akordioa onartu eta onarpen ezak Turkiako Independentzia Gerraren hasiera markatu zuen¹⁸.

2.5. Genozidio eztabaidatua

2.5.1. *Bi korronte historiografikoen borroka*

Armeniarren eta turkiarren aldeko korronte historiografikoak daude, biek gertaera bera azaltzeko argumentu ezberdinak erabiltzen dituzte, borroka historiografiko bat sortuz:

a) Armeniarren aldekoak:

Haien ustez, Armeniarren deportazioak Inperio Otomandarraren aginduz egin ziren eta sarraski horiek ondo definitutako plan baten zati ziren plan horren helburua armeniarrekin akabatzea izanik.

Korronte honetako pentsamenduaren puntu nagusiak:

- Deportazioak ezinezkoak izango ziratekeen Gobernuaren baimenik gabe.
- Gazte Turkiarren helburua Armeniar guztiekin (kultura barne) akabatzea zen, beraz genozidioaren errudunak dira.
- Gobernuaren planifikazioa eta errua, leku ezberdinetan gertatu ziren ekintza berdinek egiaztatzen dute.
- Ekintzen emaitzarengatik helburu sarraskitzailea izan zutela argi dago. Sarraskiak egiteko medioak zituen bakarra Gobernua zen, horregatik izan zen Gobernua erruduna.
- Korronte honetako historialariek Alemaniako eta Austro Hungariako artxiboetan ekintza hauek agertzen direla diote. Haien ustez, Inperio Otomandarreko aliatuen sare diplomatiko osoa (aliatuak) ekintza honen jakituna zen. Haien dokumentuetan ekintza horiek “Kasu Armeniarra” moduan ezagutzen ziren eta guztiz antolatutako plan genozida baten aztarnak ematen dituzte.

¹⁸ Hintlian, George. “Genocidio Armenio”, op. cit., 87-88 orr.

- Informe asko gerra aurretik idatzi ziren.
- Deportazioen helburua sarraskiak ezkutatzea zen.

b) Turkiarren aldekoak:

- Ez dago Gobernu Turkiarra erruduna dela baieztatzen duen dokumenturik.
- Armeniarren deportazioak behar militarrek betetzeko egin ziren. Haien ustez, Armeniako Talde Iraultzaile ezberdinek armeniarren laguntzaz armadaren kontrako ekintzak egingo zituzten armadaren erretagoardia txikituz.
- Armeniarren heriotza hauek, Lehen Mundu Gerrako testuinguruan gertatu ziren. Ez zen sarraskirik egon, deportazioak bakarrik izan ziren. Hainbeste heriotzen arrazoa gobernuaren errekurtsio falta zen, Gobernuak ezin zituen egoera hobean lekualdatu.
- Armeniarren eta turkiarren artean gerra bat egon zen, beraz gerra egoerako ekintzak izan ziren, ez genozidio bat.
- Lekualdatuen patuak ez du esan nahi genozidio plan bat zegoenik.
- Ez zegoen plan genozidarik, gerra baizik eta musulman asko ere hil ziren.
- Armeniarren matxinadak, Gazte Turkiarren politika aldatu zuen. Altxamendu horien ondorioz programa nazionalista bat eratu zuten eta programa horren helburua minorien arazoa konpontzea zen¹⁹.

2.5.2. Gerra ekintzak aprobetxatu ziren genozidioa praktikara eramateko?

Historialari batzuek genozidioa Lehen Mundu Gerrako zati den prozesu baten moduan azaltzen dute, hala ere, “Balkanetako Arazoa” Lehen Mundu Gerra baino lehenago hasi zen.

1915. urteak garrantzi handia izan zuen, urte horretan Inperio Otomandarra zatitzen zegoelako. Gainera, armeniarrek lehenengo erreforma serioak eskatu zituzten eta horren ondorioz, armeniarren aurkako erabakirik gogorrenak urte horretan jarri ziren martxan. Gazte Turkiarrek euren proiektu nazionalista martxan jarri eta “Armeniarren Arazoa” erradikatu zuten, horrela mendebaldeko potentzien interbentzioa saihestu zuten.

¹⁹Lewy, Guenter. *Las Masacres Armenias...*, op. cit., 271-284orr.

Armeniarren genozidioa, mendeku plan bat izan zen eta Anatoliatik armeniarrek ezabatzeko politika oportunistak bihurtu zen. Armeniarrek sarraskitu ostean, Gobernuak potentzia Europarren interbentzioa saihestu zuen. Genozidioa Lehen Mundu Gerrako testuinguruan eman zen eta XX. mendeko lehen genozidioa izan zen.

2.6. Prosezu genozidaren analisia, J. Sémelin eta G. Stanton-en ikuspegietatik

2.6.1. J. Sémelin

“A través del estudio de los patrones de un proceso histórico, en este caso el del imperio otomano tardío, será posible construir un análisis más amplio de la naturaleza y la causalidad de la violencia”²⁰.

Helburu hori lortu nahi denean, bi arazo nagusi agertzen dira. Inperio Otomandarreko sarraski ekintzak ikertu dira. Genozidioaren kalifikazioa Sémelinen ideietan oinarrituko da, autore guztien ideiek subjektibotasun puntu bat dutela badakigun arren, bere definizioa gertatutakoa azaltzeko egokia dela iruditzen zaigu.

Lehenengo zatian zehaztu dugun moduan, Sémelinen ustez genozidio kontzeptuak ez du karga juridikorik eraman behar, beraz, esanahi sozio-historikoa erabiliko dugu. Sarraskia zibilen suntsitze prozesu moduan definitzen du, historialariak genozidio baten moduan sailka dezakeena.

Armeniarren sarraskia **prosezu baten** ondorio da, Inperio Otomandarren armeniarren kontrako politika luze batek eta nazioarteko testuinguru jakin baten eragin handia izan zuena.

Prozesua antolatua izan zen, Inperio Otomandarreko Gobernuak antolatu zuena eta sarraski horiek egiteko kurduak (haien onarpenarekin) erabili zituen.

Prozesuan **suntsitzea** garrantzitsua izan zen. Armeniarren garapen materiala eta kulturala suntsitu zuten, helburu nagusia armeniarren presentzia suntsitzea zelarik. Prozesu horren barnean beste barne prozesu asko aurkitzen ditugu, gizagabetze prozesuak, deportazioak...

Gobernuak **zibilak** erail zituen, gutxiengo etniko bat suntsitzeko helburuarekin. Ezabatze hori Gobernuak zituen interesek eta bere estatusa mantentzeko ahaleginek

²⁰ Sémelin, Jacques. “De la matanza al proceso...”, op. cit., 8 orr.

baldintzatu zuten. Hori dela eta, 1915-1918. urteetan Gobernuak bultzatu zituen sarraskiak genozidiotzat har daitezke J. Sémelinen ikuspegia baliatuz.

2.6.2. G. Stanton

Lehengo zatian zehaztu dugun moduan, Stanton-en hitzetan, “*El genocidio se realiza en ocho etapas sucesivas de tal modo que aunque no tienen que ser necesariamente correlativas si todas ellas tienen que tener lugar para que exista un genocidio*”. Armeniako kasuan zortzi fase horiek bete ziren.

Genozidioa egiterakoan, bi kulturen klasifikazioa eman zen, nagusia Inperio Otomandarreko musulmana eta zapaldua eta gutxietsia Armeniarra, bigarren mailakoak zirela adierazteko identifikazio sinbolo bat eraman behar zuten, txano bat kasu honetan. Genozidioa gaur egun zortzigarren fasean dago, hau da, Turkiako Gobernuak ez du genozidioa onartzen eta onartzen duten herrialdeen kontrako neurriak hartzen ditu.

2.7. Aro garaikideko tratamendua eta ikuspegi internatzionala

Genozidioa 1915. urtea baino lehenago planifikatu zen, puntu hau da historialarien artean borroka handienak sortzen dituenak. Genozidioa dela aldarrikatzen dutenek, lehen aipatutako sare diplomatikoaren dokumentazioa erabiltzen dute, bertan gerra aurreko ekintza bezala agertzen dira²¹.

Beste batzuentzat, ez dago genozidioa izan zenaren frogarik eta espekulazio hutsa dela esaten dute. Dyer-en joerako autoreek, Gazte Turkiarrek genozidio bat egiteko zuten ahalmena kolokan jartzen dute, gerran erabili ez zituzten kalkuluak eta medioak erabili behar zituztelako. Haien ustez, gertatu ziren heriotza asko goseak, gaixotasunek eta kurduen erasoek eragin zituzten²².

2.7.1. Turkiarren ezetzatzea

Gobernuak bere ezetzaren tesia defendatzeko historialari profesionalak erabiltzen ditu eta horretariko asko zifrak manipulatu eta Gobernuaren ekintzak garbitzen saiatzen dira, gerra egoeraren arabekoak zirela aitortuz. Gobernuak, gaur


²¹Hintlian, George. “Genocidio Armenio”, op. cit., 84 orr.

²²Lewy, Guenter. *Las Masacres Armenias...*, op. cit., 275 orr.

egunera arte erabili duen taktika da, egungo gizarte turkiarren oraindik mantentzen dena²³.

2.7.2. Errekonozimendu internazionalaren zabalpen geldoa

NBEaren barruan dauden 193 estatuetatik 22-k genozidioa onartzen dute, baina Armeniako Institutu Nazionalaren informeez genozidioa 21 herrialdeek onartzen dutela adierazten dute.



Irudia 3. Genozidio armeniarra onartzen duten herrialdeen mapa.

1982. urtean AEB onarpenaren kontra zegoen, haren ustez, genozidio gisa sailkatzeko erabilitako dokumentu historikoak anbiguoak zirelako. Gaur egun ere, Barack Obama presidentek ez du genozidioa legez onartu. Interesak onarpenaren gaitetik daude, Turkia NATOren barruan dago eta Ekialde Hurbilean AEBen indarra egonkortzeko balio izan du, horrela Errusiaren indarrak kontrolatu izan ditu.

²³ Míguez Macho, Antonio. *La genealogía genocida del franquismo...*, op. cit., 133-140 orr.

Europar Batasua berran, hainbat herrialdek genozidio bat egon zela onartzen dute: Alemania, Belgika, Holanda, Zipre, Frantzia, Grezia, Italia, Lituania, Polonia, Eslovakia eta Suedia.

Gobernu gutxiak eman dute Turkiako Gobernuaren aurkako iritzia, baina Argentina, Frantzia eta Uruguai genozidioa eta haren biktimak onartu dituzte. Genozidioa onartu duten beste herrialdeek bide parlamentariotik egin dute, bide honen bidez ez dute kanpo politika kaltetzen.

Espania ezbaian dago. Azkeneko urteetan ikuspegia aldatu da, genozidioa denaren kontzientzia hartuz.

Turkiak genozidioaren alde dauden herrialdeen kontra egiten du, akordio ekonomikoak blokeatuz eta boikotak eginez²⁴.

2.8. Hausnarketa

Lehenengo ataleko helburua genozidio kontzeptua azaltzea zen eta bigarrenean ea definizio hori Armeniaren kasuan aplikatu daitekeen zehaztea. Bigarren zati honetan aipatu duguna laburbilduz, bai, genozidioaren definizioa eta kontzeptua kasu honetan aplikatu daitezke.

Lehenengo atalean hitza zuzenbiderako sortua izan zela azaldu dugu eta justizia internazionalaren barruan kokatu behar dugula. Kontzeptua erabiltzen hasi zenean zuzenbide kutsua zen nagusi, intelektual eta aditu ezberdinak kontzeptua sarraskien lekukoekin eta dokumentuekin zehazten saiatu ziren. Madrilen, 1933. urtean genozidioari buruzko lehenengo garrantzizko konferentzia egin zen, non Zuzenbide Internazionalako testuinguru baten, lehen akordioak lortu zituzten eta kasu honek zelan ikertu eta zelan epaitu behar diren zehaztu zituzten. Geroago Lemkinek kontzeptuaren erabilpena zabaldu zuen eta Armeniako herriaren moduko suntsiketetan erabili zuen.

Denboran zehar, kontzeptuaren esanahiak eta erabilera garatu egin zen. 1946an NBEk 96 (I) ebazpena argitaratu eta erabilpen inklusibo bat eman zitzaion. 1948. urtean ordea, "Genozidioa Ekiditzeko eta Epaitzeko Konbentzioan" erabilpen baztertzailer bat nagusitu zen, konbentzio honetatik aurrera talde politikoen sarraskitzea kontzeptutik kanpo utziz.

²⁴ *EL PAIS*, 2015 apirilak 24.

Genozidioak ikerketa arlo berriak dira eta hasieran hainbat autorek arlo juridikora mugatzen zituzten. Dena den, denbora igaro ahala ikerketa esparrua zabalduz joan da, esparru bakoitzak bere helburu zehatza finkatu duelarik. Esparru ezberdin horien artean ez dago ia harremanik eta haien arteko borroka sortzen da, horren adibide dira, *Genocide Studies* eta *Holocaust Studies*.

Zuzenbidean aritzen direnek errudunak bilatzen dituzte, Sémelin, Habernas edo Hintlian-en ustez historialariek, *zer gertatu zen, zelan gertatu zen* eta *zergatik gertatu zen* aztertu behar dute, hau da, prozesua bera.

Beraz, genozidioen ikerketetan ez dago adostasunik, baina Armeniaren kasuan Stanton edo Sémelin moduko ikerlarien ideiak planteatu ditugu eta honek Armeniako kasuari buruzko ikuspegia sakontzeko balio izan digu. Haien ideiak genozidio bat den ala ez den zehazteko ere erabili ditugu, eta azkenik biolentzia horren kausak eta prozesu historikoa azaltzen saiatu gara.

Balorazio pertsonala egitea zaila da, genozidioa ekiditeko hartu diren neurriak teorikoak dira bakarrik, interes ekonomikoek ongizate sozialaren gainetik baitaude. Hala ere, Witaker Informeak genozidioa ekiditeko helburuarekin alerta sare bat eraiki behar dela dio, horrela milaka bizitza salbatuko lirakeelako. Sare horrek errefuxiatuen segurtasuna eta osasuna bermatuko luke (Whitaker Informearen 461. orria). Lehen aipatu bezala geroko informeen ekarpenak, ezer ezean geratu dira.

Armeniako zatia baloratzerakoan interes ekonomiko eta politikoak alde batera utzi behar dira. Herrialde ezberdinetako gobernuentzat interes ekonomikoak sozialak baino garrantzitsuagoak dira, horregatik herrialde askotan ez dute Armeniarren Genozidioa onartu. Hala ere, Sémelinen ikuspegia erabiliz argi utzi dugu, Armeniako Kasua genozidio bat izan zela.

BIBLIOGRAFIA

- Ajemian Ahnert, Margaret. *El puñetazo en la puerta. Una travesía por el sombrío genocidio armenio*. Buenos Aires: Siglo XXI, 2010.
- Hintlian, George. “Genocidio Armenio”. *Historia y Política*. Ale Monografikoa 10 (2003), 65-94 orr.
- Lemkin, Raphael. *El dominio del eje en la Europa Ocupada*. Buenos Aires: Prometeo Libros, 2008.
- Lewy, Guenter. *Las Masacres Armenias en la Turquía Otomana. Un Genocidio Controvertido*. Madrid: Editorial Tam S.L., 2009.
- Marco, Jorge. “Genocidio y “Genocide Studies”. Definiciones y Debates”. *Hispania Nova. Revista de Historia Contemporanea*. Ale Monografikoa 10 (2012), 1-32 orr.
- Miguez Macho, Antonio. *La genealogía genocida del franquismo. Violencia, Memoria e Impunidad*. Madrid: Abada Editores S.L., 2014.
- Sémelin, Jacques. “De la matanza al proceso genocida”. *Revista Internacional de Ciencias Sociales*. Ale Monografikoa 174 (2002), 7-20 orr.